

1-MARINELAREN BAKARDADEA

Hogei urtekin alde_egiten gurasoekin ez ongi,
bizinahia baina lotura burua_oraindik duzu_argi. | bis

Marinela_izan nahi eta amets hori beti buruan
buruan bakarrikan balitz baitere bihotz barruan. | bis

Hogeitabat urte_eskasekin bete zenuen ametsa
zazpi itsasoak zeharkatuz handituaz bizinahia. | bis

2. NON GERATZEN DEN DENBORA

Zure baitango lurraldeetan non geratzen den denbora
non ez dagoen arnas biderik non ez goazen inora.
Non oihukatzen hurbiltzen garen erraldoiaren ondora
igo nazazu nire mendira zure gailurretik gora.

Egunez zu bizitzera
arimak zenbatzera
urrun nabigatzera
elur gazietan.

Igo nazazu nire mendira aurki dezadan bidea
askatu nadin zure loturaz behar dezadan airea.
Ez nadin izan jainko lurtiarra bai ezinen bidaidea
igo nazazu nire mendira zu ez baitzara nirea.

3. XUR - XURI

Xur-xuri baten gainean xoriak
kantatzen du kantatzen du.
Xur-xuri baten gainean xoriak
kantatzen du biziari.

Xoriek ez dakite mundu hontan zer gertatzen den
hamar jendetatik sei nola gosearekin daude.
Baina guk badakigu ta hori aski zaigu.

Xoriek ez dakite gizon onak preso badirela
eta Euskadin ere euskaldunak hortan girela.
Baina guk badakigu ta hori aski zaigu.

4. TXORIA-TXORI

Ilegoak ebaki banizkio,
berria izango zen,
ez zuen alde egingo;(Bis)
jainan, horrela,
ez zen gehiago txoria izango;(Bis)
eta nik...txoria nuen maite;
eta nik...txoria nuen maite.
...ara-larara-laa...
Jainan horrela.....

5. ORIKO XORIA

Jende gaztia da abila etxetik urun lanila
ez erran galdurik dela, itzul daiteke berehala.

Jin bedi gure artila, Oriko xoria Ori-la! (berriz)

Xorituaren hegialak arin aidia bezala...
Gaztek begira dezala azkar euskaldun odola!
Xoriak jiten zauzkula huts egin gabe sekula...
Lehenik bat, gero mila xortak egiten ixtila....

Xoria izan dadila euskaldun gazten mudela!
Mutiko ta neskatila, ziauzte denak sor-lekila!

6. NIRE HERRIKO NESKATXA MAITE

Nere herriko neskatxa maite
ahozko lorez zaitut gaur laztantzen
itsaso garden, lur gozoko landare
kresalaren usain, zeru kolore
nere bihotzaren taupaden hotsez
zure grazia dut kantatzen.

Bihotz minberen egunsentia
herri sufrituaren lamia
ipuin zaharren piper eta ezitia
erreka garbien kantu bitxia
udazken lizunez zaude jantzia
izar zerutarren irria.

Lanbro artetik itsas geldira
leunki zoazen txori airosa
amodiozko sentipenaren hatsa
zure ezpainetan loratuz doa
goizeko ihintzetan belardi zera
eguzkitan zilar dizdira.

7. ARRATSALDE HONETAN

Itxaroten ari gara arratsalde_honetan
zerbait aurkeztekotan jende_hoen aurrean.
Hemendik ateratzeko kanta berri baton bat
zuek ez aspertzeko arratsalde_honetan,
honetan, honetan, honetan.

Laupabost akorde jota kitar zahar honekin
dantzatzeko doinua ez dugu besterik.
Bi laguneko koadrila izerdi patsetan
nahiko izango dira arratsalde_honetan,
honetan, honetan, honetan.

Taupadetan dut bihotza dirua galtzetan
dantza_egiteko gogoia daramat zainetan.
Kitar bibolin doinuak jarraituz badaukat
dibertitzeko gaia arratsalde_honetan,
honetan, honetan, honetan.

8. XALBADORREN HERIOTZEAN

Adiskide bat bazen
orotan bihotzbera
poesiaren hegoek
sentimentuzko bertsoek
antzaldatzen zutena.
Plazetako kantari
bakardadez josia
hitzen lihoa iruten
bere barnean irauten
oinazez ikasia... ikasia.

Non hago zer larretan,
Urepeleko artzaina
mendi hegaletan gora
oroitzapen den gerora
ihesetan joan nintzana?

Hesia urraturik
libratu huen kanta,
lotura guztietatik
gorputzaren mugetatik
aske sentitu nahirik.
Azken hatsa huela
bertsorik sakonena
inoiz esan ezin diren

estalitako egien bortitzena...bortitzena.

berriz

9. LAU TEILATU

Hemen gaude ta poztutzen naiz
ta ziur zure aita ere bai;
ta zer ondo...zelan dijua
zure bufanda txuria.

Lau teilatu gainian
ilargia erdian eta zu
goruntz begira,
zure keia eskuetan
putzara batekin...putz!
Nere(g)ana etorriko da
ta berriz izango gara
zoriontsu
edozein herriko jaixetan.

Goxo goxo kanta egin nauzu
Benitoren Maria Solt.

Negarrik ez, txuri zaude ta malkoak
zure kolorea kentzen dute.

10. HABANERA

Berriro itzuliko balitz
iragan denbora arrotza,
berdin kontsumi nezake
bainila gozo artean;
itxaso urrun batean
irudimena galdurik,
udaberriko euritan
larrosak pizten ikusiz.
Osaba komertzianterik
ez nuen izan Habanan,
pianorik ez zegoen
bizi nintzen etxe hartan,
neskatxen puntila finak
udako arratsaldetan

errosario santua
neguko gela hotzetan (bis)

Ezpainek gordetzen dute
ezpain bustien gustoa
desiozko hortzikaran
etsipenaren tamalez.
Gauak zelatan dakusa
kontzientzia bilutsik,
badoaz ordu geldiak
gogorapenen hegalez.

Jaio ginen, bizi gera
ez dugu ezer eskatzen,
itsasontzia astiro
kaiatik ari da urruntzen,
Antillak zintzilik daude
argazkien paretetan
karta bat idatziko dut
norbaitek erantzun dezan (bis)